AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

KULTURA SAILA

6145

AGINDUA, 2011ko abenduaren 1ekoa, Kulturako sailburuarena. Agindu honen bidez, saileko goikargudun baten idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko egindako deialdia ebazten da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan eta sail horretan dauden lanpostu batzuk izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko Kulturako sailburuak 2006ko ekainaren 12an emandako Aginduko (uztailaren 11ko EHAA, 131. zk.) laugarren oinarrian ezarritakoa betez, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.– Virginia Ruiz de Infante García de Albeniz andrea Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako goikargudun baten idazkari izendatzea (C/D taldea, 520010-88 kodea, 18. maila).

2.– Izendapenak 2011ko abenduaren 1etik aurrera izango ditu ondorio guztiak.

3.– Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dionez, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean; bestela, administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administraziorekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.